

Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeak direla-eta Euskadiko Gizarteratzearen aldeko sareek alderdi politikoei egindako proposamenak

Gizarte-eredu berria behar dugu

Lehentasun bat: **gizarte-babesa** izatea
gizarte-kohesioa sustatzeko

Pertsonen zerbitzura dagoen **ekonomia**

Hirugarren sektore soziala aintzatestea
eta sendotzea

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin
Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi
European anti poverty network
in the Basque Country



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte



ELSKADIKO GIZARTE EKIMENEN ETA
ESKU HARTZEKO ENTITATEEN ELKARTEA

Hirekin

ASOCIACIÓN DE ENTIDADES DE INICIATIVA
E INTERVENCIÓN SOCIAL DE EUSKADI



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak
Redes para la Inclusión Social en Euskadi



ekain, Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak, gizarteratzearen alorrean lan egiten duten Euskadiko gizarte-ekintza erakundeen 5 sare biltzen dituen entitate da: **EAPN Euskadi** (Pobrezia eta Giza Bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin), **REAS Euskadi** (Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea), **Hirekin** (Euskadiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte), **Gizatea** (Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte) eta **Harresiak Apurtuz** (Euskadiko etorkinen laguntzarako GKEen kordinadora). Bere helburua gizarte inklusiboago bat sustatzea da, ekitatean, solidaritatean eta partehartzean oinarritutako balioak eta politikak bultzatuz.

200 erakunde inguru biltzen dituzten eta 4.000 langile profesional eta hainbat alorretan lan egiten duten 5.000 boluntario baino gehiago dituzten sareak dira: gizarteratzea, enplegua, gizarterzerbitzuak, kulturartekotasuna, gizarte-babesa, aukera-berdintasuna, txirotasunaren kontrako borroka eta gizarte-bazterketa, komunitate-garapena, ekonomia solidarioa eta abar.

Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak
Redes para la Inclusión Social en Euskadi

ekain

Venezuela Plaza 1 - 2 ezk-ezk • 48001 Bilbao
ekain@ekainsarea.net
www.ekainsarea.net

Gizarte-eredu berria behar dugu

1. Guk aldeztu dugun gobernuak gure erkidegoan bizi diren lagunen bizitza-kalitatea hobetzeko xedea izango du, eta gizartean justizia eta berdintasun handiagoa lortzea izango da bere helburu nagusia, betiere, toki, gizarte eta ingurumen aldetik iraunkorra den giza garapena sustatuz.
2. Premiaz eskatzen dugu gure erkidegoan eskumenak dituzten instituzioen (Eusko Jauriaritza, aldundiak eta udalak) arteko bat-etortzea lortzea, gizarte-politikak garatu ahal izateko, behar diren baliabideak edukita, eta estrategia eta helburu argiak izanda.
3. Gaur egun dugun krisialdia eta goraka doan gizarte-larrialdia ikusita, ezinbestekoa da lehentasunak ezartzea, teknika eta aurrekontu aldetik, herritar guztien ongizatea bermatzen duten politika eta jarduerak guztietan: besteak beste, hezkuntzan, osasunean, enpleguan, etxebizitzan, gizarte-zerbitzuetan eta gizarteratze-arloan.
4. Demokrazian gehiago sakontzea aldarrikatzen dugu, era horretan, ekonomia gobernuen eta herritarren kontrol politikoaren mende egon dadin berriz. Era berean, partaidetza bidezko demokrazia garatu nahi dugu, herritarrek eta gizarteko erakundeek eragina izan dezaten politika- eta ekonomia-arloan hartu beharreko norabidean.
5. Gizarteratzea ezinbestez jaso behar da datorren legegintzaldirako lehentasun politikoen artean, eta, gainera, bultzada eman behar zaie herritar guztientzako behar bezalako gizarte-babes egokia bermatuko duten tresnei, batez ere, gizartean baztertuta dauden edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen zuzenduta dauden tresnei.
6. Parte-hartze politiko handiagoa eskatzen dugu, gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arloko bizitzako alderdi guztietan, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko tresnak eta ekintzak behar bezala garatzeko.
7. Eusko Jauriaritzak eskura dituen baliabide guztiak erabili behar ditu, inola ere azal ez dadin beste gizarte-talde edo lagun batzueganako gorrotoa, arrazakeria edo elkartasun eza sustatzen duen jarrerarik eta jokabiderik, eta dagoeneko badauden mota horretako jarrerak geldiaraz daitezzen. Arlo horretan baliabide gehiago erabili behar dira nahitaez, aniztasuna kudeatzeko eta bizikidetzara arduraz sustatzeko.
8. Gizarteak elkartasuna agertu behar du bere mugen barruan, bai eta bere mugetatik kanpo ere. Ozen galdegiten dugu Eusko Jauriaritzak garapenerako lan-kidetzarako dituen politikei eta baliabideei eusteko.
9. Eskaera egiten dugu ingurumen-arloko iraunkortasunean oinarritutako gizarte- eta ekonomia-eredua izan

dezagun, eta, era berean, instituzioen ekintzek lehenetasuna eman diezaieten hondakinak gutxitzeko, berriz erabiltzeko eta birziklatzeko jarduerari, hartara, baliabideak hobeto ustiatu ahal izateko eta ingurumenean ondorio txar gutxiago izateko.

Lehentasun bat: gizarte-babesa izatea gizarte-kohesioa sustatzeko

Sarreraren bermea eta gizarteratzea

10. Eusko Jauriaritzari eskaera egiten diogu pobrezia gutxitzeko helburu zehatz bat ezar dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia-aren adierazle guztietan (oraingo %11,6ko pobrezia-tasa, pobrezia-aren mugatik behera bizi diren familiak, "arriskuan" dauden familiak...).
11. Ozen eskatzen dugu gizarteratzeko euskal sistema garatzeko, eta, zeharka, politika publiko guztietan alderdi hauek barne hartzeko: herritar guztiei gutxieneko sarrerak bermatzea, enplegarritasuna hobetzeko jarduerak egitea, kalitatezko zerbitzu publiko guztiak eskuratzeko modua bermatzea, eta pertsonen gizartean parte har dezaten bultzatzea.
12. Gizarteratzeko euskal sistema horrek autonomia izango du, beste sistema publiko batzuetatik aske egonik; gizarteratzeko estrategia prestatu beharko da 2020. urtera arte, eta estrategia hori zehazteko biurteko edo hirurteko planak prestatu eta garatu beharko dira; koordinatzeko metodo irekia baliatu beharko da plana diseinatzeke eta ezartzeko, eta arlo honetan esku hartzen duten eragile guztien partaidetza lortu eta bermatu beharko da.
13. Konpromisoa eskatzen dugu pertsona guztien gizar-teskubideak garatzeko, talde jakin batzuk estigmatizatzen edo kriminalizatzen ibili gabe, eta gizarteko baliabideak erabiltzen dituzten lagunei eta familiei erririk leporatu gabe.
14. Eskaera egiten dugu herritar guztiei sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko mugatzen dien eskakizun murriztaileak ken daitezzen (errolatzeko denboraldia, adina, errenta-kopurua bizikidetzako unitate bakoitzeko...).
15. Gure ustez, neurriak bultzatu behar dira ezinbestez, gizarte-bazterkeriako egoeretan aspalditik dauden lagunek bizitzan izan ditzaketan aukerak inola ere murriztu ez daitezzen, eta gizarte-laguntzak eta baliabideak eskuratzeko dituzten sarbideak ere urritu ez daitezzen, laguntza eta baliabide horiek enplegua eskuratzeko aukera gehiago duten lagunei bideratzeko joeraren ondorioz.
16. Ozen eskatzen dugu kaleratzeak geldiaraz daitezzen, eta Eusko Jauriaritzak behar diren aldaketak egin ditzan legetan, ordainean emateko aukera eta gizarteko alokairua bultzatzeko.

17. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu osasun-laguntza izateko eskubidea baldintza berdinetan babestu eta ezar dezan lagun guztientzat, lagun horien administrazio-egoera eta errolatuta emandako denbora edozein izanik ere.
18. Proposamena egiten dugu zenbait neurri abiarazteko, erlijio-askatasunarekiko errespetua bultzatzeko eta gurtzeko askatasuna benetan baliatzeko. Era berean, tresna bat garatu nahi dugu, partaidetza eta ulermena sustatzeko gutxiengoaren erlijio-erkidegoen eta gizarteko gainerako eragileen artean.
19. Eskaera egiten dugu Eusko Jaurlaritzak eta haren sailek eraginkortasunez jardun dezaten, immigrazioaren eta babesaren aurka dauden estereotipo txarrak eta aurreiritziak deuseztatzeko eta, era berean, giza eskubideak eta kultura artekotasuna sustatzeko.
20. Eusko Jaurlaritzari eskaera egiten diogu gay, lesbiana, homosexual eta transexualen taldeak gizarteratzeko politikei eusteko, eta, orobat, politika horiek hobetzeko eta sustatzeko, normaltasuna sustatu eta aniztasuna babeste aldera.

Gizarte-zerbitzuak

21. Premiazkoa da gizarte-zerbitzuen euskal sistema lantzea –lau urtez egon da geldiarazita Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea garatu ahal izateko–, bereziki, laguntzen eta zerbitzuen zorroa, eta haren mapa eta txosten ekonomikoa. Era berean, sistema berezi bat landu behar da, zerbitzu horietako batzuk eskaini ahal izateko, hirugarren sektore sozialarekin adostasun soziala lortze aldera.
22. Nahitaezkoa da gizarte-zerbitzuen euskal sistema harmonizatzea, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan lagun guztiek zerbitzu berberak izan ditzaten eskura.
23. Gizarte-zerbitzuek doakoak izan behar dutela aldarrikatzen dugu. Beste bide batzuk hautatu behar dira zerbitzu horiei eusteko egin beharreko kostuak finantzatzeko, erabiltzaileek ez baitituzte ordaindu behar.
24. Ozen eskatzen dugu gizarte-larrialdietarako laguntzak eskubide subjektibo gisa arau daitezen, hartara, herritar guztiei bermatu ahal izateko erantzun egokia eta eraginkorra jasoko dutela larrialdietan, kudeaketan zurruntasunik izan gabe eta denbora aldetik mugarik ezarri gabe.
25. Eskaera egiten dugu berehalako erantzuna emateko ezegonkortasun ekonomikoan eta gizartean baztertuta dauden lagunei, bereziki, gizarte-laguntza informala ahultzearen ondorioz egoera horietan geratu diren adinekoei.
26. Premiaz eskatzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziaren indizeak handitzeko, eta, ildo horretan, politika publiko sinergiko zehatzak bultzatzeko, pobrezia deuseztatze aldera.

Enplegua

27. Gure ustez, behar bezala bermatu behar da pertsona guztiek lan duina lortzeko duten eskubidea (beraien administrazio-egoera edo izaera edozein izanik ere), bereziki, gizartean baztertuta dauden edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden lagunei dagokiena. Era berean, lehenetsia eman behar zaie enplegu-sisteman eta zerbitzuen katalogoan sartzeko, beraien enplegarritasuna hobetu eta gizar- eta lan-munduan txerta daitezen.
28. Sisteman sartzan diren lagunen enplegarritasun-maila era askotakoa da; beraz, era askotako neurriak eta ekimenak bultzatu behar dira lagun horiek lanean txertatzeko. Lan-merkatutik urrutien dauden lagunei dagokienez, zerbitzu espezializatu bereziak ezarri behar dira, haiei bidea emateko. Hortaz, eskaera egiten dugu Lanbidek estrategia zuzena gara dezan, aniztasunaz arduratzeko eta banaka esku hartzeko, eta, horrez gain, diziplina askotako baliabideak eta bitarteko bereziak eduki ditzan talde horiei laguntza emateko. Enplegu politika eraginkorrek berriz aztertu behar dira, lagun guztiek aukera berberak izan ditzaten, beren enplegarritasun-maila gorabehera.
29. Eskaera egiten dugu areago sustatu eta indar daitezen baliabide eta aukera gutxiago duten lagunak lanean txertatzeko dauden guneak (lanerako ikastegiak, babestutako laneko programak, laneratzeko enpresak eta antzeko programak).
30. Gure ustez, ezinbestekoa da hobariak garatzea gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak kontratatzeko, era horretan, gizarte-arloko zaugarritasuna geldiarazteko, laneko egonkortasunik ezari aurre eginez eta lan egiten duten lagunen bitza-baldintzak hobetuz.
31. Enplegarritasuna hobetzeko ibilbide klasikoetatik harantz joz, enplegu-gabezia dagoen garai hauetan, behar-beharrezkoa da ondo bideratzea lagun horiek laneratzeko esku-hartzea, hain zuzen ere, ikuspegi globalak eta osokoak izanik –alegia, enplegua helmuga bakar gisa hartu ordez, pertsonak gizarteratzeko xedea duen ikuspegia izanik–. Horretarako, pertsonak dituzten beste beharrezan eta eskubide batzuk hartu behar dira kontuan, eta koordinazioan jardun behar da gainerako sistema eta zerbitzu publikoekin.
32. Proposamena egiten dugu egoera ahulean dauden pertsonak lan-munduan sartzeko lagungarriak izan

daitezkeen estrategiak bultzatzeko. Horretarako, erreserbatutako merkatuak sortu behar dira, kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-arloko klausulak sartu behar dira, lanean bitartekaritza-lana egiteko tresna egokiak finkatu behar dira, eta enpresa-arloko erantzukizun sozialeko neurriak ezarri behar dira, betiere, lanean hasteko zailtasun handiena duten langabeak laneratzeko xedea izanik. Enplegua sustatzeko politikak, langabeaz arduratzeaz gain, enplegua sortzeko esparruak hartu behar dituzte aintzat. Izan ere, enplegua lortzeko, ez da soilik eta ezinbestez kontuan izaten pertsonen profila, eta gaitasun- edota enplegarritasun-maila.

33. Ozen eskatzen dugu bateratzeko neurriak ezartzeko, emakumeak baldintza bereberekin irits daitezen lan-merkatura; eta, ildo horretan, eskaera egiten dugu Haurreskolak doan izateko, tankera horretako zentroak ugaltzeko, eta mendekotasunean dauden lagunei laguntza ematen dieten zentroen sare zabala sortzeko.
34. Proposamena egiten dugu gizarte-, lan- eta ingurumen-arloko politikak harremanetan jarriko dituzten "enplegu berdeak" sortzeko, lanbide organikoaren bidez (basoberritzea, nekazaritza ekologikoa), zaintza osagarrien bidez (paisaia hobetzea, inguruneak lehengoritzea), hezitzaile ekologikoen bidez (ingurumen-arloko ikasketak, basoen errolda, ingurumenaren babesleak, lege-aztiak, lurraldearen zaintzaileak), eta ingurumeneko ekipamenduaren bidez (ibilbideak antolatzea, natura sarea eta ostatu "berdeak").

Prestakuntza

35. Eskaera egiten dugu lanbide-heziketa egokituia sustatzeko eta indartzeko, eta, ildo horretan, bereziki aintzat hartzeko une honetan langabezia dauden eta prestakuntza urria duten gazteak –prestakuntza urria izanik oparoaldi ekonomikoan lanean hasi zirenak– edota hezkuntza-sistema goizegi utzi dutenak.
36. Proposamena egiten dugu programak ezartzeko eta bultzatzeko, "porrot" egin duten eta eskola bertan behera uzteko adinean dauden lagunak birgaitzeko: hasierako lanbide-prestakuntzako programen eskaintza handitzea, Helduen Hezkuntza Iraunkorra bultzatzea, zentro horiek helduentzako guneak baitira, haientzat bereziki egokitutako neurriak ezarri, etab.
37. Premiaz eskatzen dugu neurriak ezar daitezen hezkuntza-sistema malgutzeko eta sistemaren tarte guztiak elkarri lotzeko: laguntza ematea Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programatik Erdi Mailako Heziketa Ziklora igartzeko, eta Goi-mailatik unibertsitateko ikasketetara igartzeko, ikasketak formal, informal eta ez-formalen bidez hartutako gaitasunak onartzea, ikasketak helduen errealitatearekin bateratzea (familia, lanarekin...).

38. Eusko Jaurlaritzari eskaera egiten diogu bere eskumenen esparruan dauden kudeatze-lanak egin ditzan, atzerritarren unibertsitate-tituluen onespenez ofiziala hobetzeko eta errazago egiteko.
39. Hezkuntza-sistema metodologia eta egitura aldetik aldatu behar da, sistema eraberrituz, bizitzan barrena eskuratzen diren gaitasunak eta ikasketak aintzat hartuta, eta, ildo horretan, alderdi hauetan oinarritu beharra dago: arazoak konpontzeko prozesuetan eta proiektuetan oinarritutako ikasketak, gaitasunen araberrako programazioak eta ebaluazioak onespenez, aniztasuna aintzat hartzea, zailtasunak goiz antzemateko sistemak; curriculumak egokitzea eta norberari egokitutako esku-hartze ibilbideak sartzea.

Pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia

40. Ekonomiari pertsonen eta beren ingurunearen zerbitzura egon behar du, eta ongizatea lortzeko bide bat izan behar du haientzat; egungo sistemak, berriak, aurkakoa gertatzen da. Hargatik, ondo bermatu behar da pertsonen eskubideak (giza eskubideak eta lanekoak) eta ingurumenari dagozkionak –besteak beste– ekonomia-arloko edozein iritziren gainetik egongo direla.
41. Proposamena egiten dugu Eusko Jaurlaritzak sustatu eta lagundu ditzan pertsonen eta ingurumenari kalterik eragiten ez dieten ekoizpen- eta ekonomia-arloak.
42. Gure ustez, lehentasun bereziko da gizarte-ekonomian, ekonomia solidarioan eta irabazi asmorik gabeko hirugarren sektorean sartuta dauden jarduerak ekonomikoaren garapena bultzatzea, eta, horren ondorioz, laguntza ematea berrikuntzako eta gizarte-ekintzaitasuneko programei, prestakuntza eta ikerketari, merkatu berriak zabaltzeari, kontratazioari, etab.
43. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako zerga-sistema harmonizatu behar da, eta, era berean, zerga-sistema progresiboagoa garatu behar da, kapital-errentetako zerga eta oinordetzen gaineko zerga handitu behar dira, eta iruzur fiskalari aurre egin behar zaio. Neurri horien bidez, nabarmen hobetuko dira gizarteko kohesioa eta babesa bermatzen dituzten zerbitzuei eusteko ditugun diru-kutxa publikoen sarrerak.
44. Arbuiatu egiten dugu herritar guztien ongizatea eta gizarteratzea bermatzen dituzten politiketan eta tresnetan ekonomia-arloko murrizketak egitea, bereziki, gizarte eta ekonomia aldetik ahulago dauden lagunei dagozkien tresnak murriztea.

45. Eskaera egiten dugu euskal aurrezki kutxek duten xede sozial nagusiari eusteko, herritarrei, enpresa txikiari eta ertainari, eta gizarteko erakundeei finantzazko zerbitzuak egiteari dagokionez, eta, orobat, kutxek egiten dituzten gizarte-lanak ugaltzeari dagokionez.
46. Eskaera egiten dugu Fiare Banku Etikoaren proiektu herritarra onesteko, bultzatzeko eta sustatzeko, Legebiltzarrean hartutako akordioei jarraiki; izan ere, akordio horiek eskaera egiten diote Eusko Jaurlaritzari hitzarmenak egin ditzan bankuaren garapena bultzatzeko, zerbitzu horiek erabiltzeko, eta baterako finantza-tresnak sustatzeko, ahulen dauden gizarteko sektoreei laguntza emate aldera.
47. Eusko Jaurlaritzari eta bere enpresei eskatzen diegu behar bezala bete dezaten erosketa publiko arduratsuko politika garatzeari buruz egindako aurreko adierazpenetan adostuta dagoena, eta, beraz, gizarte, etika eta ingurumenari lotutako irizpideak aintzat har ditzaten, produktuak eta zerbitzuak kontratatzean eta erostean.
48. Gure ustez, oso garrantzitsua da bultzada ematea, irabazi asmorik gabe, eta gardentasuna, demokrazia eta lan duina sortzeko borondatea bezalako irizpideak izanik, zenbait jarduera sustatzen duten sektore ekonomikoei, zehazki, jarduera hauek sustatzen dituztenei, besteak beste: agroekologia, elikagaien burujabetza, bidezko merkataritza, tokiko eta aldirietako saltokiak bultzatzea, laneratzeko eta ekonomia solidarioko enpresek merkaturatzeko dituzten bideak, etab.

Hirugarren sektore soziala onestea eta sendotzea

49. Eusko Jaurlaritzari eskaera egiten diogu jendaurrean onespén handiagoa egin diezaion hirugarren sektore sozialak egindako lanak duen balioari, bai eta gizarte-arloko politiken esparruan solaskide gisa betetzen duen zereginari ere. Eskaera horren ondorioz, ezinbestekoa da hirugarren sektore sozialari buruzko euskal legea izatea. Hirugarren sektore sozialeko erakundeek hainbat ekimen egin dituzte historian barrena, gizarte-arloko politiketan esku hartzeko (gizarteratzea, enplegua eta gizarte-zerbitzuak), bereziki, zailtasun handiena duten taldeekin, bai eta instituzio publikoek zeregin horiek beren gain hartzen edo bultzatzen hasi aurretik ere. Eskarmentu horri esker, esperientzia nabarmena izateaz eta gizartearen onespén jasotzeaz gain, sektoreak ezagutza eta metodologia zehatz batzuk hartu ditu, eta hori balio erantsi garrantzitsua da.
50. Premiaz eskatzen dugu Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak onespén handiagoa izan dezan, lehentasunezko gunea baita Eusko Jaurlaritzaren (bere sail guztien, ez soilik gizarte-arloko politikekin harreman

na duten sailen) eta Euskal Herriko hirugarren sektore soziala ordezkatzeko duten sareen arteko harremanak lantzeko.

51. Era berean, eskaera egiten dugu hirugarren sektore sozialak parte har dezan, aipatu ditugun gizarteko politikak helburutzat dituzten foroetan, kontseiluetan, biltzarretan, etab. Horrez gain, bereziki eskatzen dugu sektoreak esku har dezan Lanbide Enplegu Eusko Zerbitzuko Administrazio Kontseiluan.
52. Hirugarren sektore sozialeko adostasun sozialeko esparru juridiko berezi bat eskatzen dugu, instituzioek dagozkien gizarteko politiken arloan zehaztu dituzten erantzukizun publikoko zerbitzuak egiteko (gizarte-zerbitzuak, enplegua eta prestakuntza, gizarteratzea, etab.).
53. Beste zerbitzu batzuk egiteko, egokia iruditzen zaigu arauetan behar diren aldaketak egitea, hirugarren sektore sozialak lehia aldetik desabantailarik izan ez dezan, eta lehiaketa publikoetan esku hartzean konparaziozko bidegabekeriarik izan ez dezan (adibidez, BEZarekin). Hortaz, behar bezala arautu behar dira sektorearen lehentasunezko jarduna edo jardun desberdina legeztatzen dituzten kontratazio publikoko osagaiak, eta, era berean, aurrekontu publikoaren erabilera inklusiboagoa izan behar du.
54. Finantziarioko esparru egonkorragoa aurkitu behar dugu, hirugarren sektore sozialak egiten dituen jardueretan, jarduera horiek ez baitute araubide lehiakor baten mende egon behar, ez eta arautu gabeko edo epe motzeko sistemen mende ere. Hortaz, bada, sektorearen finantziario-sistema egokia behar da, jardueraren arabera.
55. Laguntza eskatzen dugu kreditua lortzeko formula egokiak bilatzeko (adibidez, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez, finantza-produktu bereziak diseinatuz, banku etikoaren bidez, etab.), era horretan, gastu arruntei puntualtasunez aurre egin ahal izateko, eta, horrez gain, sektorearen kapitalizazioa eta hazkundera lortzeko lagungarriak izango diren inbertsioak egin ahal izateko.
56. Eskaera egiten dugu hirugarren sektore soziala garatzeko bidean dagoen sektore ekonomikotzat har dadin, eta onar dadin aukera handiak dituela enplegua sortzeko, eta, beraz, tradiziozko beste sektore ekonomiko batzuek (industriak, turismoak, merkataritzak...) eskuratu ohi dituzten laguntza eta sustapeneko neurriak eskura ditzakeela.
57. Eusko Jaurlaritzari eskaera egiten diogu baliabideen hornidurari eusteko, edo handitzeko, gizarte zibila antolatuta egon dadin laguntze aldera, hala herrietan, nola eskualde eta autonomia-erkidegoan, gure ustez, gizarteko ehun sendoa izatea onuragarria baita demokraziaren osasunerako eta konpromiso sozialerako.